

DERBIA ITURRIPEN: PATRONATO BILBAO ETA URBINA-MALTZAGA

ARKO

Arrasate

P R E S S

1996ko
Martxoak 15
312. zenb.

KULTURA

Beni Uzkiano

IRITZIA

Mikel Olabe

ELKARRIZKETA

Laxaro Azkune

BERRIAK

Oztopo

arkitektonikoak

IKUSPEGIA

Karmele Perez



**Zuekin...
Arrasate Irratia!**

Galaxy



*Zatoz eta
proba ezazu!*

MUGARRI



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tfnoa: 79 07 44 / 54

Inkomunikazioa

"Gizakiek beraien gogoan amets berbera daramatenean, ezin ditu ezerk inkomunikatu, ez gartzelako hormek, ezta hilerrietako lurra ere, oroitzen berberak, arima berberak, ideia berberak, kontzientzia eta duintasun berberak elikatzen baititu guztiak."

Halaxe diote Fidel Castrok egunen batean esan zituen hitzok. Lehenengo aldiz irakurri nituenean, gartzelan dagoen lagun batengandik jasota eta Guatemalako lurraldeetan hilerri klandestinoetan lanean aritu eta hango jende eta egoerarekin elkarlanean eta elkar-minean aritu ondoren, halako emozio eta elkartasun sentimendu sakon bat nabaritu nuela aitortzen dut.

Geroztik, ordea, inkomunikazio horrek inguratzen eta itotzen nauela somatzen dut: edonora begiratzen dudalarik ere, hantxe da inkomunikazioa lehenengo aktore.

Hauteskundeetan, partidu politiko gehien arteko eraso eta biraoak entzun, guztion diruak xahutu edo poltsikoratu eta ganorazko programa politikorik aurkezten ez dutenean. Eta gainera, boto piloa eskuratzen dute. Nire adimen xumeak ez du ulertzen.

Udaletxean, herriak aukeraturik eta

herriarentzat garapen proiektu berbera burutu beharko luketenean elkarri bizkarra ematen diotenean, herria bertan behera utziz.

Kaleko istiluetan, batzuk kontrolik gabe eta erreflexio sakonik egin gabe herri osoaren interesen aurka jokatzeko dutenean; eta besteek inpunitate osoz, "beroi" herriaren eta herritarren eskubide minimoak erasotzen eta zapaltzen dituztenean.

Non gelditzen da denok berbera genuen oroitzen hura? Non, elkartzen gintuen arima hura? Non galdu da herri izatearen kontzientzia? Non, euskaldunon duintasuna?

Gaur, ez dakigu nongo interesek mugitzen duten gure herria eta gure bizitza. Tronua gustoko izanik kostala ala kostala mantendu nahi duten batzuen interesek agian? Izan ere, gure gizartearen arlo guztiak zoriarekiko politikak gidatzen baititu, herritar xume izanik ulertzen ez ditugun eta uler dezagun nahi ez duten interes politikoei. Sarritan pentsatzen dut politika zoro hau ez ote den izango gizarteak asmatu duen izurriterik larriena, berorrek hondatu eta hondatzen baititu edozein gizarteren barneko nahiz gizarteren arteko harreman eta garapen positiboak, batzuen interesek gainontzekoen hondamendia eraginez. Gure herriko nahiz nazioarteko harremani begiratzeko besterik ez dugu. Zerk elikatzen du egun gizakia inkomunikazioak baino?

KARMELE PEREZ

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritate eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa

79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Berto eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana

•••••
EAREN erantzuna
“manifestatzailea
ri”

Penagarria da nola persona batzuek dena txuri beltzean ikusten duten; bi polo daude: bata ona eta bestea gaiztoa; batzuk alde eta besteak aurka; jendeak ez baditu gauzak eurek bezala pentsatzen, sentitzen eta egiten, automatikoki beste polon kokatzen dira; horren sinplea da arazoa: Txuria eta Beltza.

Ez dakizue zein latza den gris kolorekoa izatea. Euskal presoak Euskal Herriratzeari eskatzen dugu, gatazka bukatzeko negoziatu beharra ere aldarrikatzen dugu eta Euskal Herriak burujabatasuna eduki dezan independentzia lortu behar dela uste dugu. Baina aldi berean, gauza guzti hauek bakean egin daitezela eskatzen dugu, biolentziarik gabe; zeren eta biolentziak biolentzia suspertzen du eta azkenean amaiera gabeko prozesu batean sartzen gara.

Gauzak horrela ikustegatik batzuk Txuri deitzen digute eta beste batzuk Beltz, hau da, gauzak ez dauzkagula argi esaten digute.

Baina guk berriz ere arazoa konpontzeko gonbitea botatzen dugu; hori bai, ez Txurien erara edo beltzen erara, Eusko Alkartasunaren erara baizik, zeren eta benetan uste dugu, abertzaleak eseri eta hitzegiten hasten bagara, presoan arazoa, biolentziaren arazoa eta baita Euskal Herriaren burujabatasunaren arazoa konponduko dugula.

Badakigu espresioa eta iritziak ematea askea dela, eta ez zaigu gaizki iruditzen bakoitzak pentsatzen duena jakitera ematea, baina, galdera batzuk luzatu nahi dizkiogu aurreko astean gutu-

na idatzi zuenari:

- Ez al zara behar den beste teko ausarta zure izena emateko?

- Guk ez ditugu biolentziaren bideak erabiltzen, eta ez duzu mehatxurik jasoko gure aldetik, beraz, zergatik idatzi duzu gutuna ezkutuan eta nortasuna gordez?

Guk ez dugu ulertzen. Eta zuek?

EUSKO ALKARTASUNA
ARRASATEKO BATZORDEA

•••••
Manifestatzeko
askatasuna
denontzat

Azken asteetan, euskal preso politikoen alde manifestatzen garenok Ertzantzaren indarkeriaren ondorioak jasaten ari gara.

Erabateko lasaitasun eta bake-giroan, hau da, egunero bizimoduari inolako aldaketarik eragin gabe, garatzen diren manifestaldiak Ertzantzak zakarki desegiten ditu, zauritu eta kolpatu ugari sortuz.

Zalantzarik gabe, Arrasaten errepresioaren aldetik aldaketa nabarmena bizi izaten ari gara; izan ere, Guardia Zibila kendu zenetik, bakean manifestatzen zena bakean uzten zen eta horri esker elkarbizitza eta errespetuzko egoera bizi izan dugu, baina orain, egoera hori apurtzeko asmoa baino ez dutela dirudi.

Orain arte zentzunari esker era bateko nahiz beste teko erreibindikazioak publikoki egin nahi izaten dituztenek poliziaren eskuhartzerik gabe egin dituzte. Euskal Herriak orohar eta Arrasatek bereziki bizi duten egoera zai-

la gehiago ez nahasteko ahalgina egin da, egoera horrek ez baitu gorrotoa eta borroka pizten duten probokatzailen beharrik.

Errepresioa handitzeak eta borroka-nahiak sortu duten egoera berri hau, gure ustez, ez da buru bero deskontrolatu batek sorturiko emaitza bakarra.

Guk uste dugu egoera berri hau poliziaren errepresio-era eta -neurria ezartzeko ahalmena duen norbaitek Arrasateko egoerari buruz egin duen azterketa politikoren emaitza dela.

Badirudi, biolentziatzeko egoera berri honen jatorria EAJn dagoela. Trebetasun politikoen bidez lortu ez dituenak poliziaz eta enfrentamenduaz lortzen saiatu nahi du.

EAJri jasangaitza egiten zaio Arrasateko alkatetza Ezker Abertzalearen eskutian egotea. Halaber ezin du jasan euskal preso politikoen giza eskubideen aldeko manifestazioak gero eta handiagoak izatea eta Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan gero eta gazte abertzale gehiago egotea ere, zeren eta hori itxaropentsua da benetan.

Herri Batasunak berretsi egiten du enfrentamendu zibila eragingo duten egoerak ebitatzeko konpromezu politikoa argia. Halaber, edozein aukera politikok duen adierazpen -eta manifestazio-askatasuna ziurtatzeko bere esku dauden bitartekoak jarriko dituela jakinarazten du.

Zapalketa-egoera zail honen aurrean funtsean bi jarrera izateko eskatu nahi diogu gure alde dugun gizar-teari: lasaitasuna eta tinkotasuna.

Lasaitasuna, jasan behariko ditugun probokazio politikoa eta polizialak aztertu eta erarik adimentsu eta egokieran erantzuteko.

Tinkotasuna, beti ere gure

konpromezuari eusteko; izan ere, geu gara, Ezker Abertzalea hain zuzen, Euskal Herriak askatasuna eta bakea subirotasunarekin batera lortzea ziurtatuko dutenak. Ez gaituzte kokilduko ez herri honi bere eskubideak ukatzen dizkietenek ez horien aliatu mertzenarioek.

Azkenik, dei egin nahi diegu poliziaren ekintzak diseinatzen dituztenei hobeto pentsa dezaten, karga gogorrek eta atxiloketa eta kartzelaratzeek lehendik larriak diren egoerak areagotu baino ez dituzte egiten eta.

ARRASATEKO HB

Oharra


Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzelearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inazileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.

Ezagutzen duzu Arrasate Irratia?




Pilar Barrena
(57 urte)
Etxekoandrea

Ez dut ipintzen, egia esan ez dakit hartzen dudan edo ez. Hemengo notiziak emateko Arrasate Press bezalako izango dela pentsatzen dut. Ondo dagoela uste dut.



Bittor Oregi
(47 urte)
Langilea

Bai, oso ondo dago. Gauza askorekin enteratzen naiz eta etxetik ez dudanez gehi-gi irteten irratitik jasotzen ditut berriak.



Begoña Campo
(18 urte)
Ikaslea

Ezagutzen dut baina ez dut sekula entzun. Ondo iruditzen zait: herriko gauzak jorratuko ditu eta hori interesgarri iruditzen zait.



Mainer Irizar
(20 urte)
Ikaslea

Ezagutu bai, baina entzun ez. Dena den, ondo dagoela uste dut. Euskararen alde aurrerapausu handia izan daiteke, ez? Herri bakoitzak bere komunikabideak izatea ondo dago.



Puri Felix
(39 urte)
Langilea

Ezagutu bai baina jarri ez. Entzuten dutenez ondo dago baina nik ezin dut irizirik eman.



Alfredo Villar
(48 urte)
Poeta

Bai eta oso ondo dago. 50. hamarkadan ere bazegoen udal irrati profesional bat. Herriari begira egiten dena ondo dago. Aurrera jo behar dugu eta ez atzera.



Xabi Salaberri
(34 urte)
Langilea

Bai, goizero entzuten dut. Ondo dago, batez ere AEK-ko irratsaioa. Albisteak, eztabaidak, trukoak eta halako gauzak entzutea gustatzen zait. Beste irratiek baino askatasun gehiago duela uste dut.



Anastasio Ibarluzea
(73 urte)
Jubilatua

Bai, ezagutzen dut eta noizean behin entzuten dut. Herriko gauzen berri ondo ematen dutelako gustatzen zait.

TAKOLO AUTOAK

OPEL

**Zure OPEL banatzailea
ARRASATEN, zergatik
joan urrinago?**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxetxak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguualitoria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko; medikuntza orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasas900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 15
 10ak arte; Español. Iturriotz.
 Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.

Larunbata 16
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Igandea 17
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Astelehena 18
 Egunez eta gauzez: Amezua. Santamaina.

Asteartea 19
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.

Asteazkena 20
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

Osteguna 21
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

15 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Asalto al tren del dinero" 7.30etan eta 10etan.

• **KONTZERTUA GAZTETXE-AN**
 Bartzelonako "Ktulu" eta Arrasateko "Ekon" taldeen kontzertua gaueko 8etan Gaztetxean.

• **KONTZERTUA OÑATIKO GAZTETXEAN**
 "Cancer", "Moon" eta "Pornobus" taldeen kontzertua Oñatiko gaztetxean gaueko 10.30etan.

16 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Asalto al tren del dinero" 5etan.
 "Felpudo maldito" 7.30etan eta 10etan.

• **ERGUIN HERRI ESKOLAKO ASTÉ KULTURALA**
 Goizeko 9.30etan krosa. 11etan Shanbo taldeko pailazoen emanaldia. 12.15etan gimnasia eta karate saioak. Ikastetxeko ateak zabalik egongo dira bertako instalakuntzak eta ikaslegoaren lanak ikusteko. Asteaz zehar ikasle eta irakasleendako ekin-tzak egongo dira.

• **LUDETEKA IBILTARIA**
 Txatxilipurdiko ludoteka ibiltaria Musakolako Alkatetzan goizeko 11etatik ordubata arte. OHOk lehen mailatik 8. maila arteko ikasleentzat.

• **KONTZERTUA GAZTETXE-AN**
 "Nuevo catecismo católico" eta "30" taldeen kontzertua gaueko 9etan Gaztetxean.

• **BERTSO SAIOA ARETXA-BALETAN**
 Sarasua anaiek "Fauna txiki bat bertso berritan" diskoaren abestiak kantatuko dituzte, Egañak "Tximeleta Sabelean" diskokoak. Gaueko 10etan Zaratia Zineman. Prezioa 500pta. Ruandako errefuxiatuen alde Bukavu proiektuak antolatuta.

17 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Asalto al tren del dinero" 5etan.
 "Felpudo maldito" 7.30etan eta 10etan.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Kanpazar gaina, Elorrio, Berriz, Aretio, Ermua, Eibar, Soraluez, Bergara eta Arrasate. 56 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterrondik.

• **EMAKUMEZKOEN FUTBOL PARTIDUA**
 Mondra eta Almen aurrez aurre arratsaldeko 16.45etan Atxabalpen. Partidu ostean parte hartzaileek luntxa izango dute.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Martxoaren 19tik 31ra Beni Uzkiaren eskulanen erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte

EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Mutilei zuzendutako euskal dantzen ikastaroa apirilaren 15ean hasiko da, astelehenero arratsaldeko 6.30etatik 7.30ak arte. 6 urtetik 10 urte bitarteko mutilentzat. Lore Gazteak dantza taldeak antolatuta.



18 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Felpudo maldito" 7etan eta 9.30etan.
- **ODOL EMATEA**
Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.
- **ANOREXIA ETA BULIMIA HITZALDIA**
Gaia: Zer dira? Zergatik sortzen dira? Nola prebenitu? zein da moden eta publizitatearen eragina? Hizlaria: Junkal Aizpiolea psikologoa. Arratsaldeko 6.30etan AED-ko lokalean. EKIN elkarteak antolatuta
- **JARRAIREN GAZTE TOPAGUNEAK**
Gazte topaguneei begira gazteen eztabaida arratsaldeko 6.30etan Arrano Elkartearen. Zabalik gazte eta gazte-talde guztiendako.

19 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"El felpudo maldito" 7etan eta 9.30etan.
- **ODOL EMATEA**
Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.
- **ARKO BATZAR NAGUSIA MONTERRONEN**
Arratsaldeko 6.30etan ARKOko batzar orokorra. Batzar nagusian hainbat puntu bidez eskainiko da

20 ASTEAZKENA

- **UDABERRIAREN ETORRERA**

EZKONTZAURREKO TOPAKETAK

Astelehenean hasi eta ostirala arte ezkontzaurreko topaketak burutuko dira Iturriotz kaleko Abadetxean. Topaketak 8.30etan hasiko dira, gai desberdin ugari jorratuz: bikotearen heldutasuna, maitasuna, sexualitatea, gurason erantzunkizuna....

21 OSTEAGUNA

- **ARRAZAKERIAREN KONTRAKO EGUNA.**
- **ZINEA**
"Asesino del mas alla" 7etan eta 9.30etan.
- **EMAKUME ZINEGILEAK**
"Las esposas" gaueko 9.30etan Amaia Antzokian. Sarrera 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.
- **AUTOESTIMA IKASTAROAREN HASIERA**
Autoestima ikastaroaren hasiera arratsaldeko 6.30etan. 20 orduko iraupena. Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruan.

"BADOK HAMAIKA" SAIO BERRIA IRRATIAN

Ostegunero gaueko 9etan Badok Hamaika saioa, Iban Arantzabalek gidatuta Arrasate Irratian FMko 107.7an. Saioan euskal kantagintzaren historia eta bitxikeriak azalduko dira.



AED NESKEN TXAPELKETA

Zapatu honetan goizeko 10etatik ordubata arte AEDk antolatutako Nesken futbito txapelketa hasiko da San Viator Txikiko frontoian. Lau neurketa izango dira jokuan. 10etan Abstinence Substine, Jo ta akabau. 11etan Joixon bertan, Izenbakuak. 12etan Zepa-estandon eta Saktale eta ordubatean Jo ta bertan gol- Ekin gogor.

MARTUTENERA MARTXA

Martxoaren 23an larunbata, Aritz eta Ibai azken atxilotuen alde martxa Martutenera Jarraik antolatuta. Bertara joateko autobusa arratsaldeko 4etan irtengo da Arbolapetatik. Izenematea Irati eta Ekaitz tabernetan.

MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Besaidek antolatuta martxoaren 24an Mañaria, Arrietabaso, Sabigain, Urkiola eta Atxartera mendi irteera. Izenematea martxoaren 17, 18 eta 19an arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte Besaideren egoitzan.

KINTOEN BAZKARIA

1934an jaiotako kintoek bazkaria izango dute martxoaren 30ean. Bertara joan nahi duzuenok izena eman Bengoa tabernan martxoaren 28a baino lehen. Izenematea 2.000 pta.

“Daewoo euskal ekonomiarentzat ondorio onak izango ditu. 300 edo 400 lanpostu zuzen sortuko dira eta beste zenbait zeharkako. EAEko balantze komertziala ere hobetuko da, ekoiztutakoaren zati handi bat kanpora bidaliko dutelako. Ondorio negatiboei dagokienez, konpetentzia kontuak dira aipagarrienak. Fagorri, adibidez, min handia egingo dio, biek merkatu berbera dutelako. Kontuan izan behar da, Espainiako merkatuaz gain, Europako Hegoaldeko merkatuan barna zabalduko dela multinazionala, eta, dudarik gabe, Arrasateko kooperatibarentzat lehia gogorra izango da. Hala ere, orokorrean oso positibo deritzot korearren erabakiari”.

Karmelo Urdangarin, 1996-3-7.

Egunkaria

“Txikitatik barruan daramat hau. Nire izebak betidanik antzerkia egin izan du eta bera bezalakoa izan nahi nuen. Gainera beti izan naiz familiako pailazoa”.

Anuska Lasa, 1996-3-8

EL CORREO

“Daewoo ekartzea Euskal Herriarentzat orokorrean erabaki ona da eta gu ezin gaitezke horren kontra joan. Dena dela, berez txikia den merkatu batean produktore berri bat sartzeak badu bere alde txarra. Daewoo ez da bakarrik Euskal Herrian ezartzen, Europa osoan baizik, lehendik ere elektragailuen produkzioan soberakinak dauden tokian.

Orain norbait badator eta 200.000 hozkailu egin nahi baditu eta luzera begira milioi-erdi, non saldu aurkitu beharko du Espainian asko kostatuko zaio eta. Gerra oso gogorra izango da, eta beti bezala, inozotasun gutxien daukatenak izango dira irabazleak”.

Antonio Cancelo, 1996-3-8

egin

Zein asmo du AED elkarteak 1996 urterako?


Urteak daramatzagu euskara zuzpertzeko lan honen ihardueran eta badakigu, jakin, aurrerapausuak eman direla. Nahikoa ote? Amaitu ote da gure eginkizuna?

Nahiago genuke hala balitz; baina, ez, ez da amaitu eta gainera, egiteko handia geratzen zaigula uste dugu.

Gure ahaleginak, euskaraz hitz egiteko aukerak emate aldeetik bideratu ditugu, bereziki. Zeregin honetan jarraitu eta ohiko diren ihardueraz gain berriak antolatzen eta eskaintzen ere jarriko dugu arreta.

Badugu, oso kezkarri zaigun puntua: sentsibilizazioarena. Herrian euskara ezagutza maila, batez ere gazteen artean, altua da. Erabilera, berriz, ez da maila berekoa eta guztiok euskaraz egin dezagun kontzientziatu beharra dugu. Euskara tresna balioduna dugulako gizarteko edozein arlotan gure eginkizunak gartu ahal izateko eta geurea delako egin behar dugu etxean eta kalean, irakaskuntzan, ez bakarrik oinarrizko heziketan, baita hezkuntza profesionalean eta unibertsitatean ere. Enpresek ere profesional euskaldun prestatuak ditugula ikusi behar dute eta euskarak saldu egiten duela onartu.

Arlo guzti horietara heltzen garenean amaituko da gure zeregina, beraz 96ko egitasmoak besteak beste, sentsibilizazio arloa bideratuko ditugu. Sentsibilizazioa kalean, unibertsitatean eta enpresan.



Joxe Etxebarria
AEDko Zuzendaritza
Batzordeko kidea



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Greba eta manifestazioak

Ikastetxe batzuetako ikasleek greba egin zuten joan den ostegunean, hilaren 7an. Errepresioaren aurka egin zuten greba. Eguerdian eta arratsaldean manifestazioa egin zuten herrian, eta bietan istiluak izan ziren Ertzantzarekin.

Joan den ostiralean eta zapatuan, berriz, manifestazioak egin ziren, Ibai Garai eta Haritz Oianguren aske uzteko eskatuz. Zapatukoan ez, baina ostiralekoan istiluak izan ziren manifestarien eta Ertzantzaren artean.

Iaz emaitza onak Lagun-Arok

Urteko batzar orokorra egin zuen joan den zapatuan Lagun-Arok. MCCko mutualitatearendako 95a ondo joan zen, inbertsio aldetik errentabilitate ona lortu zuten eta. Gainera, langabezia laguntzek kostu gutxiago izan zuten, 1.500 milioi gutxiago gastatuz alor horretan. Hala ere, aurreko urteetatik defizita dute langabezirako laguntzen atalean, eta horregatik, langabezia kuota igo egin dute. Aurten ere emaitza onak izatea aurrakusi du Lagun-Arok.

Kuba mintzagai

Bittor Merino, Askapenako kideak, hitzaldia eman zuen Arrasaten joan



Txatxilipurdiren Batzar Orokorra

95aren errepasoa egin eta 96rako dituzten egitasmoen berri eman zuen asteartean Txatxilipurdi elkarteak. Iazko urteari dagokionez, ondo joan zela azpimarratu zuten. Aurrera begira, Eusko Jaurlaritzarekin batera egin duten ikerketa izan zuten mintzagai. Ikerketan aisialdia eta euskara gaia jorratu da, eta laster liburu bat aterako dute emaitzak ezagutzera emateko. "Txatxilipurdiren iragana, oraina eta geroa" izango da liburua- ren izenburua.

den astelehenean, azken egunetan Kuban gertatutako inguruan. Merinoren esanetan, azken urteetan zulotik ateratzeko ahaleginak egin ditu Kubak, baina EEBBk ez du nahi Kubak burua altxa dezan. Askapenakoaren ustez, Kubari politikoki laguntzea oso garrantzitsua da.

Ezker Abertzalearen oharra

Arrasateko Ezker Abertzaleak, hau da, Gestorak, Herri Batasunak, Jarraik, Egizanak, Senide-ak-ek eta LAB sindikatuak

idatzia atera zuten Ertzantzaren jarrera salatzeke. Idatzian esaten zenez, Arrasateko Ertzaindegira nagusi berria etorri denetik herriko egoera eta Ertzantzaren jokaera aldatu egin da. Nagusi berria postutik kentzea, eta Ertzantzaren jokaera aldatzea eskatzen dute idatziaren sinatzaileek. Horrela egin ezean, ezker abertzaleak eskubideen defentsarako egin beharrekoak egingo dituela esanez.

San Josepen gaztea hil

Astelehen arratsaldean, Bergarako mutil gazte bat

hil zen San Josepe harrobian. Hildakoa, Jose Migel E.A. inzialduna eta 33 urtekoa, harrobian zebilen eta 50 metroko alturatik jausi egin zen. Konorte barik baina bizirik geratu zen gaztea eta ospitalera eramane zuten arren, handik gutxira hil egin zen. Astearte arratsaldera arte ez zen argitu hildakoa nor zen. Hildakoa Gasteizko "La Nieves" egoitzan ingratsatuta zegoen.

Hitzaldia San Viatorren

Iñaki Beristain frantziskotarrek, familiaren egoera izan zuen mintzagai asteartean San Viator ikastolan. Beristainek esan zuenez, gaur egun familia noraezean dabil, gizartearen lekurik izango ez balu bezala. Bestalde, familiaren jokaeran gauzak aldatu egin direla azaldu zuen, emazteak eta senarrak egiten dute kanpoan lan eta. Familian komunikazioak duen garrantzia ere azpimarratu zuen.

JAIOZAK

- Asier Sanchez Jimenez. Martxoaren 1ean.
- Jon German Mancisidor. 3an.

HILDAKOAK

- Barbara Ezkurra Areitio. 86 urte. Martxoaren 6an.
- Sabina Barrera Rodrigo. 74 urte. 7an.

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57


BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412



* Mikel Olabe

Alternatibak tentsio altuko hariteriari

Industria ministeritzak, Redesa eta Iberdrolari Santander eta Gipuzkoako itsaso artean 400 kiloboltioko hariteria jartzeari bultzada eman zion tentsio altuko linea elektrikoak erabilgarritasun publikoak duela erabaki zuenetik. Instalakuntza honek izugarriko protestaldiak jaso ditu Enkarterrian, hemen ere horrelakoxe zerbait eraikitzea baita lehen hurbiltze honen azken xedea. Linea hau Legutianoetik Goronaetako Urkulurantz datorrigu, hemendik Oñatira eta handik itxas-aldera.

Mota desberdineko arazoak sortzen dituen gai honen inguruan plazaratu dituzte bere iritzi eta kezkek, hainbat ikertzailek, CODA-ko ekologistak esate baterako, EHNE baseritarren sindikatuak eta beste zenbait taldek.

Gizakiari tentsio altuak beti sortarazten duen kanpu elektro-magnetikoak (KEM) ekar dakiokkeen kalteen artean azpimarra daitezke: minbizia, leuzemia, eta aldaketak jokabide eta erritmo biologikoetan. Eztabaida pil-pilean dago; gero eta gehiago baitira aipaturiko arriskuak baieztatzen dituzten ikerketak. Europar Batasunak, bada ez bada, debekatu egin du edozein ekintza iraunkor tentsio handiko lineen azpian.

Animalien zortea, KEMaren eragina dela medio, ez da hobe: Behie esnea gutxitzen zaie, erleek ezta egiteari uzten diote, eta arrainek errekatxetatik ihes egiten dute. Hegaztiak, elektrokutazioak eta kableekin topo egiteagatik barra-barra heriotza aurkitzen dute. CODA-k (Coordinadora de Organizaciones de Defensa Ambiental) azaltzen duenez, Doñanan bakarrik 100 km. luzerako hariterian urtero 2.000 hegazti hiltzen dira. Batez ere gizabanako handi etaertainak hiltzen dira: arrano desberdinak, hontz erreala, ahateak...

Tentsio altuko lineak ingurune naturalean eta hiri aldean kalte gogorak eragiten ditu. Redesak hariteriaren azpia eta inguruko lur-sailak bereztatzen dituzte, hirietan, ordenamendurako izugarriko arazoa suposatzen duen hesi

.....
“Energia elektrikoa zentralizatzeak eta alde batetik bestera eramateak izugarriko arazoak sor diezaietako ekologiarri nahiz izaki bizidunari”

arkitektonikoa eraikitzen du.

Gure lurraldeari dagokionez hariteriak oso-osorik hartzen ditu Gorbea, Aitzgorri eta Urkulu. Linea pasatzen den inguruko txikizioa nabaria da, kontuan hartzen bada linearen alde bietan dauden zuhaitz eta landareak mozten direla. KEM-aren eraginagatik haizea ionizatu egiten da, batzuetan hain arriskutsua den euri azidoaren osagarri den nitrogeno oxidoa agertuz, eta beste batzuetan, izaki bizidunengan kalteak eragin dezakeen ozonoa agertzen da. Harien luzera eta zabaleran zehar igarotzen den hotsak, pertsona sentikorretan arazo psikiko-nerbioak sortaraz ditzake. Tentsio altuko lineak, suteak ere sor ditzake, bizitza arriskuan jarri, gizakia elektrokutatu.

Energia elektrikoa zentralizatzeak eta alde batetik bestera eramateak izugarriko arazoak sor diezaietako ekologiarri nahiz izaki bizidunari. Behar beharrezkoa da eztabaida sakona oinarri bezala hartuz energia garbiak (eguzkiarena, eolikoa, geotermikoa...) erabiltzea. Tentsio altua gaitzeten dugunon lehen zutabe alternatiboak haxe da. Baina, oraindik zorritzarez, amets gero eta hurbilagoa besterik ez den hau gorpuzten ez den bitartean, konponbideak proposa nahi dizkiegu gaurko postedun egoerari nahiz azken proiektu berriari. Ildo honetatik, proposa daiteke, kablea lurpetik pasatzea, honek KEMa desagertarazten ez badu ere, neurri handi batean, hegazti eta paisaia integralarengan hariteriak duen eragina gutxitu egiten du. Beste aldetik, eraikita dauden lineetan, eta animalien hilketan murriztu asmoz, poste eta harien diseinua aldatu egin beharko litzateke, baita hegaztien negualdi lekuetatik eta eremu hezeetatik instalakuntza hauek urrundu ere.

*EKIKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

BATAK ETA BESTEAK

Sarritan entzuten dugu nagusien aldetik gaurko gaztedia galduta dagoela. Errespetu falta, juergak... eta beste hainbat eta hainbat hitz, norberari bururatzen zaizkion guztiak. Hala ere ez gaitzezen arduratu, horrelakoak orain bi mila urte ere esaten ziren eta. Baina bakoi-tzari berea: gaurko nagusiak galduta daude. Esate baterako (eta hemen ere makina bat adibide aipa dezakegu noski) hilabete dela jasandako elurteetan ikusteko aukera izan genuena: errepidean pilatutako elurra zela eta, kotxea etxean uztea izango litzateke bidezkoena, baina bai zera! Bideetan ez zen ibilgailurik falta izan. Gaurko nagusiek, Aretxabaletara lanera joateko edota Santamainatik kalera etortzeko adibidez, kotxeari ezin tregoarik eman. Kilometro gutxi batzu egiteko mendiko botak jantzi eta gogotsu oinezan joan ordez autoa hartu behar derrigorrez. Ezin bizi auto barik kontsumoak inguratutako gizartean. Nortzu eta beraien ahotan hainbestetan gerra osteko eskasaren kontuak entzun ditugun nagusi horiek. Gaurko nagusiak galduta daude.

ANDER ETXEBERRIA



Semaforo batzuk soinua duten arren, guztiek ez dute eta hori arazoa izaten da itsuendako.

Itsuek eta ezindu fisikoek oztopoak kentzea eskatu

Deba Garaiko ONCE elkarteak eta Inersok Arrasaten dauden oztopo urbanistiko eta arkitektonikoak kenduz joateko eskaria egin diote Udalari. Arrasateko Udala, itsuek eta ezindu fisikoek herrian dituzten oztopo urbanistikoak konpontzearen alde azaldu da. Horretarako, oztopoak zeintzuk diren eta non dauden jakiteko ikerketa egingo da lehengo. "Bi aukera daude azterketak egiteko -dio Amaia Zalakainek, Deba Garaiko ONCEko arduradunak- Udaleko Hirigintza Saila ardura daiteke ikerketa egiteaz edo bestela, ONCEren barruan ere badago departamentu bat horrelako lanak egiten dituen. Egokiena zer den kontuan izanda, Udalak erabakiko du zein bide aukeratu". Orain arte hiriburu handietan egin izan da eskari berdina. "Normalean 50.000 biztanle baino gehiago duten hirietan hartu dira oztopoak kentzeko neurriak. Gure ustez, herri txikiagoetan ere badira oztopoak, eta apurka-apurka gainditu behar ditugu".

Soinurik ez duten semaforoak, eskaile-ra altuak, ranparik gabeko eskailera... horiek lirakeke oztopo urbanistikoak. Arkitektonikoak, berriz, eraikinaren barruan agertzen direnak dira. "Badira eraikin publiko batzuk, anbulategia edo Udala, adibidez, itsuendako eta ezindu fisikoendako trabak dituztenak". Amaiaren iritziz, soinua duten semaforoak jartzeak asko erraztu dezake itsuaren eta beste batzuen bizimodua. "Kontuan izan behar da pertsona nagusi batzuek ez dutela ondo ikusten, eta horiei ere ondo etorriko litzaieke. Bestalde, eskailera ondolan aldapa jartzearekin, ezindu fisikoei ez zik beste batzueri ere mesede egingo diegu".

Amaiaren esanetan, euredako oso garrantzitsua da kalean ahal den eta oztopo gutxien aurkitzea. "Independetzia ematen digu eta guretako oso garrantzitsua da geure kabuz mugitu ahal izatea. Horrez gain, lasaitasuna ere eskaintzen digu".

Lindanea dagoen aztertu

Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailak azterketak egingo ditu, Besaide isurtegiaren lindanea dagoen ala ez jakiteko. Urtebetez eta bi hilabetero egingo dira azterketak. Emaitzek lindanea dagoela erakutsiz gero, neurriak hartuko dira arazoarekin bukatzeko.

Ikuskizunen legea dela eta

Jendaurreko ikuskizunak eta joko iharduerak arautzen dituen legea jarri du indarrean Jaurlaritzak. Lege horren arabera, ikuskizunen batean 700 lagun baino gehiago egon behar bada, ekintza horren berri eman behar zaio Jaurlaritzari eta ondoren berak emango du baimena; ikusle kopurua txikiagoa bada Udalari dagokio baimentzea.

Lege berria dela eta, Arrasaten ikuskizunetarako dauden lokalen berri eman dio Udalak Jaurlaritzari. Udalaren zerrendan honako toki hauek aipatzen dira: Ostarku dantzalekua 287 lagunendako tokiarekin, Alai zinema 686 lagunentzat, Amaia antzokia 828 ezarlekurekin, Musakolako kirolgunean 470 lagunendako tokiak, 400 Iturripeko kirolgunean eta Musakolako kiroldegiko kantxa 1.600 lagun hartzeko gaitasunaz. Aipatu diren tokietan batean zehaztutakoa baino jende gehiago sartzen bada eta zerbait gertatuz gero, antolatzaileena izango da erantzunkizuna.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Bertsio kontrajarriak eman dira joan den osteguneko istiluen inguruan

Ertzantzak eta Gestorak bertsio desberdinak eman dituzte joan den ostegun arratsaldean, hilaren 7an, gertatutakoen inguruan. Jarraik deituta, errepresioaren aurkako manifestazioan istiluak izan ziren manifestarien eta Ertzantzaren artean. Istiluetan, Ertzantzaren auto bat erre zuten eta Ertzantzak bi gazte atxilotu zituen. Bi gazteak Martuteneko kartzelan daude.

Ertzantzak emandako bertsioaren arabera, aurpegia estalita zeramaten gazte batzuk hiru mola, ov koktel bota zituzten, Garibain aparkatuta zegoen Ertzantzaren auto kamuflatuaren aurka. Koktel bat barrura sartu zen baina bapatean eztanda egin ez zue-



Jarraik deituta errepresioaren aurkako manifestazioak egin ziren ostegunean

nez, barruan zeuden bi ertzainek kanpora irten ahal izan zuten, eta batek gazte bat atxilotu zuen. Bigarren atxiloteta, berriz, inguruan zebilen beste ertzain batek egin

ei zuen.


Gestorak adierazitakoaren arabera, auto kamuflatua etorri, bi ertzainak autotik jeitsi eta Haritz Oianguren, Abaroa inguruan zebilen atxa-

baltarra atxilotu zuten. Momentu horretan, auto barruan inor ez zegoela, norbaitek koktel bat bota eta autoak su hartu zuen. Bitartean, Roneo etxe inguruan zegoen Ibai Garai arrasatearra atxilotu ei zuen Ertzantzak.

Atxilotutako bi gazteek istiluekin zerikusirik ez dutela uste du Gestorak, eta horregatik, lekuko laguntza eskatu du. Gertakarien inguruko testigantza eman dezaketenei, Usobiaga abokatuarekin harremanetan jar daitezela eskatu die Gestorak.

Arrasateko Jarraik antolatuta, bestalde, datorren zapatuan Martutenera martxa izango da, Ibai eta Haritz aske uzteko eskatzeko.

ARTIBOKO



weru®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...



Asteartean prentsurrekoa eman zuten Xabier Zubizarretak eta Juan Jose Saez-ek.

J. M. Loiti: "Gure asmoa ez da plenotik agintzea"

HBk epaitegira jo du, hirukoaren erabakiaren balio eza frogatzeko. Enpresa Berri-tzaileen Zentruaren jarraipena egiteko, batzordea eratzea proposatu zuen EAJk azken plenoan, eta sozialisten laguntzarekin onartu egin zen.

Asteartean emandako prentsurrekoaren bidez, kontentzioso administratiboan jarritako errekursoaren berri eman zuen Xabier Zubizarretak. "EAJk proposatutakoa ez da legezkoa, eta hirukoaren helburu bakarra alkatetzari eta gobernuan dauden bi alderdiei kompetentziak kentzea da. Hiru-

koaren jokaera erabat inkoherentea da, gobernuan parte hartu barik Udalaren agintea hartu nahi du eta" esan zuen alkateak.

Jose Mari Loiti, EAJren bozeramalearen iritziz, "hirukoaren asmoa ez da plenotik agintzea, ezta gobernu kideei kompetentziak kentzea ere". Loitiren esanetan, gertatzen dena zera da: "gehiengoaren iritzia dela balio duena, eta gobernuan dauden bi alderdiek ez dutela gehiengorik".

Batzordeari dagokionez, EBZaren gaia aztertzen hasi zenean, batzordea eratzea kome-nigarritzat jo zela azpimarratu du Loitik.

Udalak eta Pesak hitzarmena sinatu

Asteazken eguerdian hiri-gintza hitzarmena sinatu zuten Pesak eta Arrasateko Udalak.

Musakolan, Pereda al-tzarien lantegia zegoen tokian, autobusak uzteko tokia ego-kituko du garraio enpresak. Egokitzapen horiek egitea-gatik karga urbanistikoak ordaindu beharko dizkio Pesak Udalarari. Guztira 50 milioi ordaindu beharko dizkio garraio enpresak, eta 10 urtetan egingo da ordainke-ta. Urtea bukatu orduko, ego-kitze lanak bukatuta egongo direla uste da. Gaur egun Mallabian uzten dira Deba Garaian erabiltzen diren auto-busak.

Bost arrasatear gose greban

Kepa Urria, Jesus Mari Zabarte, Luis Mari Azkar-gorta, Jon Agirre eta Jose Gabriel Urizar presoek hasi zuten gose greba asteazken gauean. Txandakako gose grebak 15 egun iraungo ditu. Euskal Herrira ekar ditzate-la eskatzeko ari dira baraua-l dia egiten.

Barceló Bidaiak

P. MALLORCA

APIRILAREN 7tik 14ra.

BARCELO BAHAMAS HOTELA (3*)

P.C. URA/ARDOA BARNE

40.500 pta.

TENERIFE

APIRILAREN 7tik 14ra.


PRIMAVERA / ALBORADA HOTELAK (3*)

P.C. URA/ARDOA BARNE.


52.600 pta.

Egin zure erretserba!

Maalako Errabala, 33 behea
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 11



AEDk antolatuta HIKa ikastaroa burutu da asteburu honetan Ozaetako aterpetxean. 26 lagun elkartu ziren Jabi Ozaeta, Miren Arregi eta Xabier Zubizarreta irakasleen aginduetara Hika berba egiten ikasteko. Bertan AEDko gazteak ere izan ziren antolatzaile lanak betetzen. Ikasi auskalo ikasi duten baina ondo pasau, bai horixe!. Hemendik hilabete batzuk barru beste ikastaro bat emateko asmoa du AEDk.



Askapenak antolatuta **Kubari buruzko argazki erakusketa** egon da ikusgai asteburuan Jaizale, Iturriotz, Irati, Etxerat, Biona eta Iluntz tabernetan.

Oraingoan txanda Kubari tokatu bazaio ere, datozen asteburutan Palestina, Txiapas eta Guatemala iruzko erakusketak jarriko dira.



Uribarriko jubilatuetan mus, tute, domino eta briska txapelketak antolatu dira. Asteazkenean parte hartzaileek merienda izan zuten sariak banatu eta elkarrekin egoteko. Briskako irabazleak Margarita

Santamarina eta Paquita Castaño izan dira. Tutekoak Jose Martin eta Lorenzo Roja. Dominoan Antonio Fernandez eta Alberto Borjes. Musean Felipe Sanz eta Damaso Sanchez. Zorionak guztioi!






Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

PUB HAIZEA





Gipuzkoako Trialsin txapelketa egon zen jokuan domekan

Udalan. 80 neska mutilek ikuskizun paregabea eskaini zuten goiz osoan. Beldur barik eta bizikleta ondo

dominatuz aho zabalik utzi zituzten bertan zeuden ikusleak. Txapelketa zenez, irabazleak egon behar eta mailaz maila hauek izan ziren: Juniorretan onena Alberto Gomez 26 punture-

kin. Infantiletan Igor Escudero, honek ez zuen akatsik ezin. Alebinetan David Iglesias, 6 puntu lortuz. Hasberrietan Ruben Zabaleta eta emakumeetan Aihora Obeso 26 punturekin.



Egizanek urtero moduan **martxoaren 8an** nazioarteko emakumearen eguna ospatzeko afaria antolatu zuen Arrano elkarteak. Gaueko 9.30etan emakumez bete zen jan-

gela eta giro onean pasa zuten gaua. Afa-lostean gorputzari astindutxo bat emateko dantzaldia izan zen Herriko plazan Betiprest taldearekin.

IZEN PROPIOAK

● Txatxilipurdi elkarteko zuzendaritza batzordean aldaketak izan dira. **Amaia Larrañagak** egon beharreko urtean bete duelako utzi egingo du batzordea eta kide berria **Manu Etxeberria** da.

● **Juan Mari Otaegi** Kongresu kooperatiboko lehendakari izendatu dute. Otaegi MCCko finantza saileko lehendakariordea da eta era berean Euskadi Kutzako lehendakaria. **Paco Salegi** bestalde lehendakariorde izendatu dute. Salegi Erkop elkarteko zuzendaria da eta Eroski kooperatibako lehendakari. Bide batez, behin betirako komisioko kide berriak aukeratu ziren. **Juan Domingo Gaztañaga, Juan I. Aizpurua, Juan Jose Anduaga, Isabel Markaide, Fernango Gomez Acedo, Jabier Goieneztea** eta **Antoni Llopis**.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

NACION REIXA

+

Elkorobarrutia

Martxoaren 22an, OSTIRALA
Gaueko 10etan
Amaia Antzokian
Sarrera: 500 pta.

gm
gaztemaniak



ARRASATEKO UDALA

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko
3. ihardunaldia.*
- *Protagonistak:
Iñaki Izquierdo eta Iñigo Gutierrez.*

Normaltasuna da nagusi bigarren faseko bigarren

ihardunaldian. Taldeek ez dute inolako arazorik izan eta epaileekin ere ondo moldatu direla esan behar. Neurketak aurrera joan ahala gauzak argitzen ari dira eta talde faboritoak dagoeneko lehen postuetan daude kokatuta. Nolanahi ere oraindik goiz da bigarren fasean gerta daitekeenaren gainean hitz egiteko.



Ekin
Emakumeak • AED

EKIN elkarteak antolatuta.
Laguntzaileak: Emakunde,
Udala, Foru Aldundia.

ANOREXIA ETA BULIMIA Hitzaldia

Zer dira? zergatik sortzen dira? nola prebenitu? zein da moden eta publizitatearen eragina?

Hizlaria: Junkal Aizpiolea psikologoa.
Martxoaren 18an, AEDko lokalean,
arratsaldeko 6,30etan.

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	2	2	0	0	11	4	4
Kamasutra	2	2	0	0	13	5	4
Perrahotsa	2	1	1	0	5	2	3
Okoretegi	2	1	1	0	5	3	3
Hirei	2	1	0	1	6	5	2
A ti que te importa	2	0	0	2	6	11	0
Txeyenex	2	0	0	2	3	9	0
Zotz Motz	2	0	0	2	3	13	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Los Heredia	2	2	0	0	10	6	4
Fosforos	2	1	1	0	13	7	3
AC Surcos	2	1	1	0	8	6	3
Sokoakoak	2	1	1	0	10	8	3
Nuevo taberna	2	1	0	1	10	10	2
Cerv Leintz	2	0	1	1	7	8	1
Orlando Piratas	2	0	0	2	6	10	0
Lautherbrunen	2	0	0	2	8	15	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	2	2	0	0	9	1	4
Arrasate Kirolak	2	1	1	0	9	6	3
Pub People	2	1	1	0	7	6	3
MSM Ing. Integ.	2	1	0	1	5	4	2
Insert Coin	2	1	0	1	5	7	2
DKB	2	0	1	1	7	10	1
Arrogoi Taberna	2	0	1	1	6	9	1
Danok lagun	2	0	0	2	3	8	0

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Betrayer	2	2	0	0	11	5	4
Irati STS	2	1	1	0	6	5	3
Totem	2	1	1	0	8	7	3
Trikiti	2	1	0	1	11	6	2
Aurrera Bolie	2	1	0	1	7	5	2
Sortu Informatika	2	1	0	1	6	9	2
Artzankos Udalaiz	2	0	0	2	3	6	0
Anbotoste	2	0	0	2	3	10	0

Hurrengo partiduak

Larunbata 16 Zaldibar

8.50 Zotz Motz - Okoretegi taberna
10.00 Sokoakoak - Lautherbrunen
11.00 Arrogoi taberna - MSM Ing. Integ.
12.00 A ti que te importa - Hirei
13.00 Danok Lagun - DKB
14.00 Sortu Informatika - Anbotoste
15.00 Fosforos - Nuevo taberna
16.00 Txeyenex - Argi Ibili
17.00 Insert Coin - Arrasate Kirolak
18.00 Aurrera Bolie - Totem
19.00 Perrahotsa - Kamasutra

Igandea 17 Zaldibar

8.50 Pub People - Adelaida Haizea
10.00 Los heredia - AC Surcos
11.00 Trikiti - Artzankos Udalaiz
12.00 Irati STS - Betrayer
13.00 Orlando Piratas - Cerv Leintz

GOLAK

91 sartu dira bigarren ihardunaldian. Golik lortu ez duen talde bakarra Anbotoste izan da. Gehien lortu dutenak Trikiti eta Kamasutra izan dira, bakoitzak 6. Sailkapen orokorrean gol gehien Kamasutra eta Fosforosek sartu dituzte bakoitzak 13 lortuz. Jaso berriz Lautherbrunenek, 15 bi ihardunalditan.

Emaitzak

A Taldea

A ti que te importa 2 - Argi Ibili 4
Txeyenex 1 - Hirei 5
Perrahotsa 1 - Okoretegi Tab. 1
Zotz Motz 1 - Kamasutra 6

B Taldea

Fosforos 3 - Cerv Leintz 3
Orlando Piratas 3 - Nuevo tab. 5
Sokoakoak 3 - AC Surcos 3
Los Heredia 5 - Lautherbrunen 2

D Taldea

Arrogoi Tab. 1 - Adelaida Haizea 4
Pub People 2 - MSM Ing. Int. 1
Danok Lagun 1 - Arrasate Klr. 4
Insert Coin 5 - DKB 2

E Taldea

Aurrera Bolie 3 - Betrayer 4
Irati STS 2 - Totem 2
Trikiti 6 - Anbotoste 0
Sortu Infor. 4 - Artzankos Udalaiz 2

Astebukaerak zer eman du?

Asteburuak emaitza aipagarri batzuk eman ditu Zaldibarren. Betrayer eta Aurrera bolie taldeen arteko partiduak bi aurpegi izan zituela esan behar. Betrayer 4 eta 0 jarri zen aurretik eta neurketa berea izango zela zirudienean 3 gol sartu zizkion Aurrera Boliek baina ez zuen berdinkeratik lortu. Fosforos eta Cerverceria Leintzen artekoa bizia eta lehiatsua izan zen, azkenean hiruko berdinketa nagusi. Okoretegi berriz, Perrahotsa izan zuen aurrean eta Okoretegi jokalariek makina



bat aukera sortu bazuten ere, baloiak ez zuen aterako bidea hartu eta banako berdinketarekin konformatu behar izan zuten. Bestalde esan behar da lehen fasean ondo ibili ziren taldeak, A ti que te importa, Orlando Piratas eta Txeyenex maila ezin eman dabilzala fase honetan. Bestalde, Los Heredia larri eta estu sailkatu zen bigarren fasera baina une honetan B multzoko liderra da 4 punturekin. Fase batetik bestera beraz, era guztietako aldaketak eman daitezke. Aurrerantzean zer gertatuko den falta diren bost ihardunaldiek argituko dute.

Protagonista**Iñaki Izquierdo
Kamasutra**

— Espero zenuten bigarren fasera sailkatzea?

— Hasieran ondo hasi ginen baina azken partiduetan okertu egin zitzaigun txapelketa, zzalantzak izan genituen. Dena dela, azkenean lortu dugu eta hementxe gaude lehian.

— Zer moduzko multzoa tokatu zaizue?

— Nahiko zaila, A multzoan talde sendoak daude eta. Argi Ibili, Txeyenex, A ti que te importa oso ondo ibili ziren lehen fasean, bigarrenean euren kontra jokatu behar dugunez, partiduak irabaztea ez da samurra izango. Hala ere, ez dugu amore emateko asmorik eta hona heldu bagara hurrengora sailkatze-



ko lan egingo dugu partiduz partidu.

— Astean zehar entrenatzen duzue?

— Ez, partiduetarako elkartzen gara eta kitto. Bestalde esan behar da jende mordoa garelara taldean, beraz aldaketak egiteko ondo dator. Txarrena horrenbeste garez bakoitzak minutu gutxi dugula jokatzeko.

— Faboritorik bai?

— Fosforos eta Argi ibili ikusten ditut kementsu. Finala euren artean egon daitekeela uste dut. Adelaida Haizeak ere aukerak izan ditzake baina beste biek gehiago.

— Bigarren fasean arauak aldatzen dira, zer iruditzen zaizu?

— Arauak aldatu arren urtero berdinak dira eta ez dute arazorik ematen.

— Zotz Motz taldearen kontrako partidua zer moduzkoa izan da?

— Erraz irabazi dugu 1 eta 6. Neurketan aukera asko sortu dugu eta sei gol bihurtu, beraz, ezin gara kexatu. Zotz Motz ez da ondo ibili eta eurak baino talde sendoagoa garelara garbi utzi dugu kan txan.

Labur

■ **I HARDUNALDIKO PARTIDU GOMENDAGARRIAK**
Hirugarren ihardunaldian ez dira partidu interesgarriak falta izango. Zapatuan arratsaldeko 3etan Fosforos eta Nuevo taberna izango dira lehian. Pronostikoak betez gero, ikuskizun bikaina erakutsiko dute bi taldeek. 4etan Txeyenex eta Argi ibilik neurtuko dituzte indarrak. 6etan Aurrea Bolieren aurkaria Totem izango da eta 7etako neurketa ere ikusteko modukoa izango da: Perrahotsa eta Kamasutra aurrez aurre. Domekan, goizeko 10etan Los Heredia liderrak, euren postua defendatu beharko dute AC Surcosen aurka. 12etan Irati STS Betraye liderraren kontra neurtuko ditu indarrak eta ordubatean Cerveceria leintzen arerioak Orlando Piratas atxalbaltarrak

■ **PUNTU BARIK HAINBAT TALDE**
Une honetan zortzi talde daude puntu barik. A multzoan A ti que te importa, Txeyenex eta Zotz Motzek ez dute neurketarik irabazi eta sailkapeneko azken tokietan daude. B multzoan beste bi: Orlando Piratas eta Lautherbrunen. Dn berriz, bakarra, Danok lagun hain zuzen ere. Eta azken multzoan beste bi Artzankos Udalaiz, Anbotoste.

Protagonista**Iñigo Gutierrez
Zotz-Motz**


— Bigarren fasera sailkatzen zareten lehen urtea da?

— Ez, ia urtero sailkatzen gara. Lehen kuadrilakook bi talde genituen Zotz eta Motz baina aurten bat egin dugu eta Zotz Motz izenaz gabiltza jokutzen.

— Zergatik elkartu zintzen?

— Konturatu ginen taldeetan gero eta jende gutxiago zegoela jokatzeko. Asteburutan taldeak ezin osatu ibiltzen ginen beraz aho batez erabaki genuen talde bakarraz parte hartzea Zaldibarren.

— Zer moduzko multzoa tokatu zaizue?



— Egia esateko ez dakit. Nik neuk nire neurketak ikusten ditut eta besteez ezer gutxi dakit. Jendeak multzo gogorra eta lehiatsua dugula esaten du baina hori partiduetan erakutsi behar da.

— Faboritoak?

— Neurketa gutxi ikusi dut galdera hori erantzuteko. Dena dela urterokoak izango direla uste dut. Era berean azpimarratu behar da gure taldea ez dela txarra eta egun ona dugunean irabazteaz gain, joku polita erakusteko gurea garelara. Zotz motz bide onetik badoa zer esanik izan dezake txapelketan.

— Fase honetan arauak aldatu dira, ondo dago aldaketak?

— Arauak ondo ikusten ditut eta antolakuntzak ezarritakoak direnez bete behar ditugu txapelketa ondo joan dadin. Atezainari baloia ez ematea, aldaketak ate ostetik egitea ondo dago baina albotako sakeak ateratzeko jarri duten arau tontokeria hutsa iruditzen zait.

Uribe Auzoa Txapelketa

A taldea

La mosca Gao 3 - Hirei 4
 Los Urracas 4 - The Barrio 1
 Pasteleria Papur 2 - Killer Barbies 3
 Zipote Nukleiko 2 - Kamasutra P. 6
 Patxi eta Txapi 1 - Zutari 1
 Egocentrico 5 - Creature Feature 2

B taldea

Arrasate Zoo 2 - Amo Katxis 5
 Ganba al Whisky 3 - Decima Victima 3
 Pobres Rangers 5 - Nuevo taberna 8
 Rayo Batikano 4 - Manchester Fumaited 3
 Elisabeth 6 - Ale Ale 3
 Eight 6 - Kamasutra 4

D taldea

Zigarrolako Mutlizaharrak 5 - Bortxitxak 0
 Borrock Roll P 6 - Tandem 5
 Cart Igamo 1 - D. Antonio 3
 Betrayer 10 - Gallinero 3
 Zurt 4 - Power Rangers 8
 Mikel Lasa S 1 - Jaleo Bila 2

E taldea

Nahiz ta gure 6 - Piernodoiuna 2
 Beluga 8 - Borrock Roll 4
 High Society 5 - Racing de Molotov 7
 Ganbelas 1 - Koka Juniors 10
 Balon Rojo 9 - Euskal Supporters 4
 Blind 2 - Joseba Kont. 4

F taldea

Potrosorri 5 - Cheer readers 0

Munar txiki 3 - Lautherbrunen 7
 Interlaken 3 - Dribling 13
 Uglys Txinato 12 - Tropikana 7
 Baneuko 6 - Arsenal DHD 1
 Leya 2 - Malpika's 3

■ Zaldibar txapelketa bigarren fasera heltzarekin batera, Uribe Auzoa txapelketa jarri da abian. Sekula baino talde eta jokalarri gehiagorekin hilabete luze hauetan jokuan izango da baloia Iturripe A eta Bn.

URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK

Larunbata 16

Iturripe A

10.00 Los Urracas - Killer Barbies
 11.00 Amo Katxis - Eight
 12.00 Beluga - Racing de Molotov
 13.00 Cartonajes Igamo - Gallinero
 14.00 Piernodoiuna - Blind
 15.00 Cheer Readers - Leya
 16.00 Ganbelas - Euskal Supporters
 17.00 Potrosorri - Lautherbrunen
 18.00 Pasteleria Papur - Kamasutra P.
 19.00 Munar Txiki - Dribling
 20.00 Hirei - Egocentricos

Iturripe B

12.00 Zipote Nucleico - Zutari
 13.00 Betrayer - Power Rangers
 14.00 Nahiz ta gure - Borrock Roil
 15.00 Uglys Txinato - Arsenal DHD
 16.00 Patxi eta Txapi - Creature Feature
 17.00 Ganba al Whisky - Nuevo taberna
 18.00 Borrock Roll Promesas - Diego Antonio
 19.00 Arrasate Zoo - Decima Victima
 20.00 High Society - Koka Juniors


Igandea 17

Iturripe A

9.00 Balon Rojo - Joseba Kontenedoreak
 10.00 Pobres Rangers - Manchester Fumaited
 11.00 Interlaken - Tropikana
 12.00 Zigarrolako Mutlizaharrak - Tandem
 13.00 Elidabeth - Kamasutra

Iturripe B

9.00 Rayo Batikano - Ale Ale
 10.00 Zurt - Jaleo Bila
 11.00 Bortxitxak - Mikel Lasa
 12.00 Baneuko - Malpika's
 13.00 La mosca Gao - The Barrio



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia.
 Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

**Ezagutu itzazu PVCren
 bitartez gaur egun
 eskura dauzkazun
 leiho miresgarriak, ez
 hotzik, ez berorik, ez
 soinurik...**

107.7 FM: Arrasate Irratian zaude

Maria Agirre

Goizean, oilarraren kukurrukuarekin batera, berriketan hasten da Arrasate Irratia. Lehen kukurruku 94ko azaroan entzun zen, frogekin hasi zenean. 95eko otsailean berriz ere irratiko oilarra kantuan eta kazetariak berriketan hasi ziren. Orditik, makina bat kukurruku entzun da.

Antolatzeko errezena eta merkeena izan arren, aldizkaria eta telebista baino beranduago iritsi da irratia Arrasatera. Beranduago baina heldu da, eta apurka-apurka emisio orduak gehitu eta programazioa sendotu egin da.

“Irratia gorputza hartuz doa” dio Patxi Monterok, irratia arduradunetarikobatek. “Sortu zenetik gutxinaka-gutxinaka pausuak ematen joan gara, eta dagoeneko irratia finkatuta dagoela esan daiteke. Oraindik hala ere geratzen zaigu zer landu”.

Gaur egun goizez, arratsaldez eta gauez emititzen du Arrasate Irratiak, bataz beste bost ordu eta

erdi egunero. Programazioaren barruan, gainera, orduro Euskadi Irratiaren albistegiak eskaintzen dira, eta emisio bukaeran Euskadi Irratiaren programazioarekin bat egiten da. Udazkenerako, hala ere, emisio orduak gehitu nahi dituzte zazpi ordu eta erdi emititzera heldu arte.

EZAGUNA DA?

Galdera zaila erantzuteko. Izan ere oraindik goiz da zenbat

entzule dituen jakiteko, baina entzulego azterketa egiteko asmoabadute. “Kalean komentarioak egiten dizkigute, bainajakin nahi genuke zenbat entzule dugun. Horregatik, udaberri aldera entzulego azterketa egingo dugu, Arrasate Irratia nork pizten duen jakiteko”.

Herrian ezezik, inguruko herrietara ere heltzen da Arrasate Irratiaren seinalea. “Gure eskualdean herrien arteko distantzia txikia da, eta horregatik, normala ikusten


dugu inguruko herrietako informazioa ere ematea.

Hori bai, Arrasateri ematen diogu lehentasuna”.

UDAL IRRATIA

Arrasate Irratia udal irratia da; zerbitzu publiko bat baina irekia. “Irratiaren ateak zabalik daude nahi duten guztientako, bai umeendako, gazteendako edo helduendako” dio Patxi. “Horrez gain partehartzailea ere bada. Nahi duena etor daiteke irratian programa bat egin nahi duela proposatzera”. Baina irratia badu beste ezaugarri garrantzitsurik, irratia erabat euskalduna da

eta. Era horretan, euskara bultzatzea ere bada irratihonen helburua.



Irratiko arduradunak: Nerea Zubiete eta Patxi Montero.

Zer entzun daiteke Arrasate Irratian?

• ALBISTEGIA

Astelehenetik zapatara, goizeko 9etatik 9.30etara.
Aurkezlea: Patxi Montero.

Edukia: Arrasateko albisteak, prentsan Arrasateri buruz agertzen diren kroniken errepasoak, herriz-herriko kronikak, istripuak, hileta oharrak, agenda, eguraldia. Zapatutan, gainera, herriko kronisten komentarioa.

• HAU DOK HAU ASTELEHENA

Astelehenetan, goizeko 10etatik 11etara.

Aurkezleak: Aitziber Aranburuzabala, Jon Balenziaga, Gor-ka Etxabe.

Edukia: Elkarrizketak, aholkuak, agenda, kirolak eta merkatu txikia.

• AEK TXOKO

Astelehenetan, hamabostean behin, goizeko 9.30etatik 10etara. (Astelehen arratsaldean, 2.30etatik 3etara errepikatu egingen da).

Aurkezleak: AEKko ikasleak.

• EMAKUMEAK SOLASEAN

Astelehenetan, hamabostean behin, goizeko 9.30etatik 10etara.

(Astelehen arratsaldean, 2.30etatik 3etara errepikatu egingen da).

Aurkezleak: Egizan eta Emakumeen Asanblada.

Edukia: Emakumeen inguruko gaiak.

• "BIXAU" ORDUAN

Asteartetik ostiralera, arratsaldeko 2.30etatik 4etara.

Aurkezlea: Nerea Zubiete.

Edukia: Goizean jorratutako gaien eta elkarrizketen errepikapena.

• CARAVANSERAI

Astelehenetan. Gaueko 10etatik 11etara.

Aurkezleak: Juan Luis Azkarate eta Roman Martinez.

Edukia: 60-70 hamarkadetako musika entzun daiteke. Batez ere rock zaharra.

• KAXKIKIRRATX

Asteartetan. Gaueko 10etatik 11etara.

Aurkezleak: Josune, Maritxu eta Txiki.

Edukia: Gazteendako programa: gai baten inguruan elkarrizketa, kale inkestak, jendeak bidalitako eskutitz intimoen irakurketa, dedikatoriak eta horoskopoa.



• "GOIZORO" MAGAZINA

Asteartetik ostiralera, goizeko 9.30etatik 11etara.

Aurkezlea: Nerea Zubiete.


Edukia: Elkarrizketak, aholkuak, txutxumutxuak, merkatu txikia, efemerideak, ingurugiroa, baserria, auzoak, kontsumoa, zinea, hirugarren adina...

• **KAKATUA**

Asteazkenetan. Gaueko 10etatik 11etara.

Aurkezleak: Biteri egoitzako ikasleak. Hiru talde osata daude eta astero batek egiten du.

Edukia: Eskolako berriak, lehiaketak, txiste lehiaketa, kontaktak oso "beroak" eta dedikatoriak.




• **BADOK HAMAIKA**

Ostegunetan. Gaueko 9etatik 10etara.

Aurkezlea: Iban Arantzabal.

Edukia: Euskal kantagintzaren nondik norakoak aztergai.



• **TXERRENDANTZA**

Ostegunetan. Gaueko 10etatik 11etara.

Aurkezleak: Aitor Garcia, Unai Osinaga, Nerea Atxa eta Garbiñe Perez.

Edukia: Musika gogorra entzungai eta jendearen telefono deiak.

• **SORGINAK ERRATZA HARTZEN DUENEAN**

Ostiraletan. Gaueko 9etatik 10etara.

Aurkezleak: Maider Osa eta Saioa Lizarralde.

Edukia: Magazin itxurakoa. Elkarrizketak, horoskopoa, sketxak, dedikatoriak.

• **K.G.B.**

Ostiraletan. Gaueko 10etatik 11etara.

Aurkezleak: Iker Errasti eta Iagoba Blazquez.

Edukia: Informatikaren inguruko saioa. Sariak ere ematen dira.



• **JAILARAI**

Zapatutan. Goizeko 9.30etatik 10etara.

Aurkezleak: Maialen Azkarraga, Belen Aranbarri, Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perez.

Edukia: Haurrendako saioa: musika, ipuinak, jolasak. Eskoletan egindako grabaketak.

• **ZER DERITZOSU?**

Zapatutan. Goizeko 10etatik 11etara.

Aurkezleak: Leire Aperribai, Monika Sanchez eta Eider Solupe.

Edukia: Gai baten inguruan tertulia, gaztetxo eta nagusiekin.

• **ZOROKLASIKOAK**

Zapatutan. Goizeko 11etatik 12etara.

Aurkezleak: Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola, Eusebio Iñarra eta Juan Garai.

Edukiak: Irratiko programa "zoroena". Musika klasikoaren inguruan. Arrasateko edo arrasatearren kontzertuen grabaketak ere entzungai.



Goi mailako derbia Iturripen:

Urbina Maltzaga eta Patronato Bilbao puntuen bila

Urbina Maltzagak ez du lan makala izango Patronato Bilbao taldearen kontrako norgehiagoka gainditzeko. Domekan arratsaldeko 6etan Iturripen gipuzkoarrek eta bizkaitarrek neurtuko dituzte indarrak, itxuraz interesgarria eta ikusgarria izan daitekeen partiduan. Bilboko taldea gutxi arte multzoko liderra izan da eta 27. ihardunaldia jokatu denean, 21 partidua irabazi eta 6 galdu ondoren bigarren tokian dago 48 punturekin. Urbina Maltzagak 42 puntu ditu eta 6. tokian dago, Arteixo eta Askatuak taldeekin puntuetan parekatuta.

Samaniego entrenatzaileak seguruenara ezingo du Carlus Groves amerikarra kantxaratu. Izan ere, domeka horretan Taugres Basconiak neurketa garrantzitsua jokatu behar du eta Gasteizko taldean izango da. Gai nontzekoak gertu egongo dira Bilboko taldearen kontra lan onena egiteko. Patro-



Urbina Maltzagak neurketa zaila izango du domekan.

nato ere talde onenarekin etorriko da Arrasatera. Ladson amerikarra, Hermosilla eta Patric Saez de Ugarte kontuan

hartzeko jokalaria dira eta euren lana beti bezala erabakiorra izango da. Lehen bueltan talde biek elkarren kon-

tra jokatu zutenean Bizkaitako taldeak 2 puntuko aldeaz irabazi egin zuen. Emaizta hori errepika ez dadin, Arrasateko jokalaria ezin dira lokartu duten onena emateko.

Partidua beraz garrantzitsua izango da baina irabazteko zaila. Urbina Maltzagari lehen fasea bukatzeko beste bi neurketa geratzen zaizkio. Martxoaren 23an Clesa Ferrol izango du aurrean Galizian. Clesakoek sailkapeneko 7. toki betetzen dute 41 punturekin. Lehen bueltan galiziarrek irabazi zuten 63 eta 75 Iturripen. Hurrengo zapatuan Urbina Maltzaga eta Vino de Toro izango dira nor baino nor. Zamorako taldeak ez du aukera handirik igoerako play offean sartzeko. Hala ere garaipenaren bila etorriko dira eta ez dute etsiko lan horretan. Esandakoak esan hilabete luze eta bete izango du Arrasateko saskibaloitza taldeak martxoan.

Arrasate eta Bejarano Iturripen

Arrasate eskubaloitza taldeak Salamancako Bejarano taldearen bisita jasoko du zapatuan arratsaldeko 6.30etan Iturripen. Bejarano 17. ihardunaldia jokatu duenean sailkapeneko 7. tokian dago 17 punturekin. Teknikoki talde sendoa ez bada ere, ezker hegaletik min handia egiten du beraz

arrasatearrek neurketa aurrea ateratzeko ondo zaindu beharko dituzte alde horretako jokalaria. Baina Arrasate taldearen arazo handiena ez da Bejaranoren etorrera, etxean jokatu beharra duela baizik. Ezaguna denez Arrasate ez du neurketarik irabazi Iturripen eta euren jokua asko jeisten da etxe-

an jokatzen dutenean. Hori dela eta kezkatu daude arrasatearrak. Herrero entrenatzaileak bestalde, ez du bajarik izango eta talde sendoen atera ahal izango du zapatuan. Partidu hori jokatu beste bi geratuko zaizkio denboraldia bukatzeko. Kanpoan Ereintzaren kontra jokatuko du datorren

zapatuan. Ereintza 5. tokian dago 20 punturekin eta lehen bueltan 25na berdindu zuten Iturripen. Partidu hori irabazteko modukoa izan daiteke. Azken neurketan Arrasate eta Zarautz izango dira lehian. Zarautz taldeko liderra da eta gaur arte ondo erakutsi du zergatik dagoen hor goian.

Villatuerta eta Laudion txirrindulariak

Arrasateko afizionatu mailako taldeak bi lasterke-ta izango ditu astebukaeran. Zapatuan Nafarroako Villatuertako lasterketan hartuko dute parte Arrasateko txirrindulariek. Guztira 12 joango dira, Aperribai, Askasibar, Lizaso, Azkorra, Larrea, Zugasti, Fraile, Dieguez, Frutos, Valgañon, Cuartero eta Migel. Arratsaldeko 3etan hasiko da Nafarroako froga eta 130 kilometroko ibilbidea izango du.

Domekan IX. Laudio saria egongo da jokuan. Hor ere izango da Arrasateko ordezkartzarik. Sastre, Estevez, Arranz, Cuartero, Migel, Fraile, Zugasti, Larrea, Azko-



Txirrindulariek bi erronka izango dituzte astebukaeran.

rra, Lizaso, Askasibar eta Aperribairen eginbeharra 110 kilometro osatzea, ahalik eta denbora onena eginenez. Goizeko 10etan egon

beharko dute txirrindulariek hasierako lerroan.

Bi erronka jarraian izango dituzte talde berri honetako txirrindulariek.

LABURRAK

Mondrak Azkoagainen zita

Aloñamendik eta Mondrak derbia jokatu dute Azkoagainen futbol zelaian domekan. Oñatiarrak denboraldi itxurosoa egiten ari dira eta 8. tokian daude 38 punturekin. Mondra ezinean dabil eta dagoen zulotik irteteko geratzen zaizkion neurketetan ezin egingo du kale. Horregatik garrantzitsua eta irabazi beharrekoa izango da Oñatin jokatu duen derbia. Zivojevikek ezin du Aritz Arabaola zelairatu aurreko neurketan lesionatu egin zelako. Aritzek 6 puntu jaso zituen sudurrean eta hezurren bat hautsita dauka. Partidua arratsaldeko 4.30etan jokatu da.

Arrasatearrak ere Donostiako Aerobic-tonean

Aerobic-ari bultzada eman eta zale ugari duen kirola dela erakusteko Aerobic-ton froga antolatzen da Donostian. Zapatuan burutu zen aurtengo txapelketa eta bertan Saioa gimnasioko 15 kirolari izan ziren, 13 emakume eta bi gizakume. Iñaki Muñoz eta Jon Aranbarri musikaz baliatuz gorputza mugitzea helburu duen kirol horretan parte hartzera ausartu ziren herriko mutil bakarrak izan ziren. Aerobic zale hauek hiru orduan era guztietako ariketak egin behar izan zituzten. Hasierako bi orduan Donostia-ko bi irakaslek ikastaro bat eman zuten, ikastaroa ez



zen txapelketan sartzen. Azken orduan Carmen Valderas munduko txapela hiru urtetan lortu duen kirolariarekin aritu ziren. Ordu horretan teknika eta erre-

sistentzia fisiko hartzen kontuan eta maila ematen ez zutenek bertan beharra utzi behar izan zuten froga. Saioa gimnasioko aerobic zaleek lan polita egin

zutela esan behar. Pili Muñagorrik 6. toki eskuratu zuen eta Beatriz Rubiok 7.ena. Bestalde Rakel Mertzan gaztea bigarren sailkatu zen 14 urte azpiko mailan.

Beni Uzkiano

Eskulanen sekretuak

Benik eskulan erakusketan jarriko du martxoaren 17an Monterronen. Tailer txiki bat dauka Aldai kalean eta makina bat emakume joaten da berarengana etxeko apaingarriak eta bestelakoak egiten ikastera. Berak dioenez, etxetik irten eta denbora pasatzeko terapia ezin hobea da eskulanak egitea. Erakusketan bere ikasleekin lanak jarriko ditu.

— Noiz eta zergatik hasi zinen eskulanen munduan?

— Orain hamar urte hasi nintzen semearengatik. Semeak hamar urte inguru zituen eta eskulanen bat egiteko gogoz zebilen. Gainera ez zitzaion kalera irteeta gustatzen eta etxeko ganbaran egoten zen traste zaharrak bilatzen etabar. Nonbaiten apuntatzeko eskatu zidan eta eskulanak egiten erakusten zuten toki baten bila hasi nintzen. Aurkitu nuenean, umea txikiegia zela esan zidaten, baina ni berarekin joanez gero, posible zela. Biok eman genuen izena. Semea urtebetez ibili zen baina niri geroz eta gehiago gustatzen zitzaidanez jarraitu egin nuen. Orain, astean behin Gasteiza joaten naiz klaseak jasotzera, teknika berriak asmatzen direlako eta horiek ikasi nahi ditudalako. Ikasten dudana gero ikasleei irakasten diet.

— Noiz erabaki zenuen eskulan tailerra zabaltzea?

— Beno, konturatu barik hasi nintzen klaseak



ematen. Etxean toki gutxi nuen eskulanak egiteko eta etxe azpian lokal polit bat zegoela konturatu nintzen. Hutsik zegoen, inork ez zuen erabiltzen eta han jarri nintzen nire gauzak egiten. Inguruko bizilagunak niregana etortzen hasi ziren eskulanak egiten erakusteko eskatuz eta horrela hasi nintzen.

— Azkenaldian, oso modan dago eskulanak egitea. Zergatik?

— Oso entretenigarria da baina horrez gain, terapia antzeko bat ere badela esango nuke. Arazoak dituzten emakumeak etortzen dira, senitatekoren bat hil eta etxetik ateratzen ez direnean,

lagunen batek bultzatuta ematen dute izena, eta horrela behintzat, etxetik atera eta burua beste zerbaitean izaten dute. Jendearekin harremanak izateko modu ona da ere. Bestalde, etortzen diren emakume askok seme helduak dauzkate eta egun osoa libre edukitzen dute. Arratsaldea etxean ezer egin barik ez pasatzeko, eskulanak egitera etortzen dira. Teknika asko egiteko aukera dago, beraz, norbait teknika batekin ez bada ondo moldatzen, beste bat probatzen du eta beti aurkitzen du ondo doakion bateren bat.

— Jendeak zer eskulan egiten du gehien?

“Eskulanak egitea entretenigarria izateaz gain terapia on bat ere izan daiteke”

— Hasten direnean, aldizkariak gordetzeko kuxtak, pertxeroak, koadroendako markoak, marmitak eta horrelakoak egiten dituzte gehienbat. Gainera, modan daude horrelako apaingarriak eta oso politak geratzen dira. Gero gauza zailagoekin hasten dira. Irailean, adibidez, portzelana errusiarreko ikastaro bat antolatu nuen eta emakume batzuk lorak, eta zuhaitz txikiak egin dituzte teknika honekin.

— Zer jarriko duzu erakusketan?

— Denetarik. Ikasleek egindako gauzak jarriko ditut. Estaiñoarekin apaindutako kuxtak, marmitak, markoak, tarazeak, portzelanak, iruditxoak... denetarik. Dena den, Harresi aretoan txanda eskatu nahi dut erakusketan zehatzago bat jartzeko. Orain “Tiffany”ak egiten ari dira batzuk, kristal zati txikiekin apaindutako lanparak dira. Kristala zati txikietan moztu eta gero leundu egiten da. Argia kristaletatik pasatzen denean, oso efektu polita egiten du. Erloju zahar bat ere ekarri didate. Oso polita da eta berriztatzen dugunean, ederto geratuko da. Gauza konkretu horiekin erakusketan egitea gustatuko litzaidake Harresin.

— Gizonak etortzen dira eskulanak ikastera?

— Egia esan, ez. Hirurogei bat ikasle ditut eta guztiak emakumezkoak dira. Etorri egin beharko lirake, gizona zuzendutako eskulan asko dago eta, tarazea adibidez.

Nación Reixa eta Elkorobarrutia elkarrekin Amaia antzokian

Datorren ostiralean, martxoak 21, Nación Reixa musika talde galiziarrek kontzertua eskainiko du Amaia Antzokian gaueko 10.30etan. Galiziarrekin batera, Elkorobarrutia talde arrasatearra arituko da.

Nación Reixa taldea Antón Reixa musikari galiziarrek eta Negu Gorriak talde euskalduneko Kaki Arkarazok osatzen dute. Taldeak bere lehen LPa kaleratu du, 17 kantuz osatutako "Alivio Rápido" eta orain bira egiten ari da Euskal Herrian diskoa ezagutzera emateko. Orain arte Iruñan, Urnietan eta Getxon egon da taldea; orain berriz, Arrasatera dator. Zuzeneko emanaldietan Donostiako Parafunk taldeko burua den Javier Pez-en kolaborazioa izaten du Nación Reixak.

"Alivio Rápido" diskoari ezker taldea merkatuko azken hilabeteotako sorpresa bihurtu dela esan behar da. Euren diskoan pop, rock, funk, rap eta tekno musika



Elkorobarrutia taldea.

estiloek egiten dute topo. Taldeak bi hizkuntzatan graba-

tu du bere lehen diskoa, galizieraz eta gazteleraz, beraz,

diskoa bietan dago salgai.

Elkorobarrutia ahots taldeak bere aldetik, 10 bat kanta abestuko ditu Nación Reixaren kontzertua hasi baino lehen. Mikel Arregik, Iñaki eta Nestor Maidaganek, Javi Arizabaletak eta Carlos Agirreurretak erritmo desberdineko kanta herrikoiak eta eurek asmatutakoak kantatuko dituzte. Elkorobarrutia taldea erdi deseginda zegoela aipatu du Iñaki Maidaganek, joan den urteko ekainetik emanaldirik emateke. Udalak Nación Reixarekin batera agertzeko eskatu zienean, animatu egin ziren.

Orain entsaiotan dabilta ahotsak behar bezala berotu eta prestatzeko.


NACION REIXA



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE






Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Euskararen erabilera martxoaren 3-ko hauteskunde kanpaina Arrasaten

AED elkarteak, beste kanpaina-tan bezala, hauteskunde orokorretan ere neurtu egin du alder-

di politiko bakoitzak zenbat eus-kara erabili duen. Hona hemen emaitzak:



Oharra:

Mitin bat bakarrik izan zen, Eusko Alkartasunarena hain zuzen ere, eta euskararen erabilera %48koa izan zen. Txomin Iturberen omenaldia, berriz, ez dugu mitin bezala kontsideratu.

Euskaraz bizi!

● *Laxaro Azkune*

Herri Irratiko ahots ezaguna

Nahiz eta jendaurrean sarritan ikusi, irrati gizona da Laxaro Azkune. Bere ahots lasaia eta hizkera patxadosoa eguneroko entzungai izaten dira Euskal Herriko hainbat sukaldetan. Euskaraz aritzen da eta gehienetan euskal kultura izaten du hizpide.

- Nola iritsi zinen irrati mundura?

- Azpeitiako Oñatzeko baserri batean jaio nintzen. Hamar urte neuzkan Donostira joan nintzenez, Seminaria joan aurretik erdaraz ikastera. Magisteritza ikasi eta bederatzi urte pasa nituen lan horretan, bat Donostian eta zortzi Azpeitiako ikastolan. Joxe Mari Iriondo telebistara joan zen 83an, eta halako batean, erdi-bromatan esan zidaten niretzat bazela txoko bat irratan. Erdi-bromatan esandako hari buelta batzuk eman eta lanposturako deialdia egin zutenean izena eman eta neu aukeratu ninduten.

- Jendaurrean ere makina bat aldiz ikusi zaitugu.

- Herri-kirolak, bertsolaritza, euskal kultura... eremu hori lantzea tokatu zitzaidan irratan. Garai hartan hasi zen bertsolari txapelketa berria


eta deitu egin ninduten bile-retara. Gai jartzen hasi behar nuela esan zidaten. Bertsozalea beti izan naiz, baina horrelako lanak sekula egin barik nengoen. Azkoitia izan nuen estreinaldia, txapelketa lehen saioan eta ez zait sekula ahaztuko, benetan gogorra egin zitzaidan eta. Txapelketa hartan bertan finala aurkeztu behar izan nuen. Zirrarak handia izan zen: belodromora azaldu, mikrofono aurrean jarri, jendetza handi hura ikusi... eta handik dagoeneko alde egiterik ez zegoela konturatu nintzen. Norberak bere barruan pasatzen dituen ikara handi une horietako bat izan zen.

- Gustorago non? Jendaurrean ala irratan?

- Irratan jendaurrean baino erosoago sentitzen naiz. Jende askok pentsatzen du jendaurrean lasaia, patxadosa, egoeraren kontrola duten horietakoa etab. naizela, baina beti neurekiko pentsatu izan dut jendeak ez nauela ondo ezagutzen.

- Euskara eta euskal kulturaren inguruko gaiak jorrazten dituzu gehienbat. Nola ikusten duzu gure kultura?

- Herri honetan aldea bada-gogoa esaten dena eta egiten



denaren artean. Jende oso ona lanean ari da, fede honez etab. Jende horrek askotan instituzioengandik laguntza izan beharrean ezezkola izaten du, eta hala ere jarraitu egiten du. Instituzioek, noski, esango dute gauza denak ezin dituztela beraiek mantendu. Unè honetan ez dut uste agintarien aldetik, euskara eta euskal kultura lehen interes bezala hartuta daudenik. Hankasartzea iruditzen zait, ez dut eta imajinatzen Euskal Herri bat euskara barik eta euskal kultura edo izaera barik. Gure belaunaldian euskarari giza bultzada handia eman zaio, baina ez bazaio ongarririk ematen hori hoztu egin daiteke.

Bestetik, alderdi politiko guztiei eskatuko nieke euskara eta euskal kulturaren inguruan minimo ba-

tzuen adostasuna, ez gaitzen beti ibili batzuk alde eta besteak kontra eta horrela.

- Kazetari ala esatari?

- Esatari gehiago esango nuke. Idazten aritu izan naiz ere, baina bapatekoan gustorago egoten naiz, ezagutzen dudak gaien inguruko elkarrizketak egiten, mahainguruetan...

- Erdaraz lanik egingo duzu noizbait?

- Nekez. Eguna, astea, eta ordu gehienak euskaraz pasatzen ditut, eta erdaraz hitzegiten hasten naizenean oso nagia eta traketsa sentitzen naiz. Beste erremediorik ez banu... ez dakit zer egingo nukeen.

- Udal irratiak nola ikusten dituzu?

- Funtzio bat izan dezakete, baina arrisku bat ikusten diet, agintean dagoenak bere erara erabiltzeko badi-ra, ez zaizkit interesgarriak iruditzen.

● **Jendeak uste du lasaia eta patxadosoa naizela, eta askotan pentsatu izan dut ez nautela oso ondo ezagutzen**



oan den astean bertan ematen zen ARRASATE PRESSen Aizkora taberna itxi zeneko berria, hauteskunde igandean gertatzen zen kontu hori. Gaurkoan Aizkoratarrak beraiek ekarri ditugu fotozahraren sail honetara. Ezkerretik hasita lehenengoa, **Markos**, segidan, bere anai-arrebak, **Mercedes**, **Segundo**, **Natalia** eta **Luis Balanzategi Elorza**.


Argazkia Arrazolan aterata dago, Atxondon, Segundoren emaztearen baserri ondoko zelaian. Egun horretan Segundo eta

Agustinaren arteko ezkontza ospatuko zen, 1948ko otsailaren 4an. Hain zuzen ere, Segundo bera da bost anai-arreben arteko bizi den bakarra, 82 urterekin. Sukaldari aparta da Segundo, Bilbon egunero 300 lagunendako bazkariak ematera iritsi da, nahiz eta sukalde txikia izan.

Datak berak, argazki honetan esanahi bitxia du. Izan ere, atera eta 47 urtera, egun berean hilko zen Luis Balanzategi Elorzaren emaztea, Tomasa. Luisek, Maala Errabalean janari-

denda izan zuen.

Aizkora tabernako kontuetara itzuliz, esan lehen titularra Markos izan zela, eta taberna irekitzeko baimena 1940. urteko otsailaren 29an jaso zutela Balanzategitarrek, Udal plenoak hala erabakita. 56 urtez, egon da bada taberna zabalik, eta ospe handia dauka Brigida Beloki sukaldariak, Markosen alargunak, prestatzen dituen plater gozoei esker. Zenbat pasadizo gertatu ote da betirako atek itxi dituen Aizkora tabernan!



HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

Hilbera
kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

BASABE
JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABAETA

Erdiko kale. 79 19 37
TILEA
Ferrerias. 79 87 62

Z E R N A H I A G O ?

J. Antonio Galeano**"Equus" tabernakoa**

- **Bezeroek zer eskatzen dute gehien?** Garagardoa.
- **Zuk zer eskatzen duzu tabernetan?** Gauza bera.
- **Sagardoa ala ardoa?** Ardoa.
- **Rocka ala bakalaua?** Rocka.
- **Lo egin pijamaz ala barik?** Barik.
- **Telebistan zer ikusten duzu?** Futbola.
- **Zein egunetan hartzen duzu jai?** Ez daukat jai egunik.
- **Tabernari izatearen alde ona?** Jende asko ezagutzen duzula.
- **Eta txarra?** Ordu asko sartzen da hemen.
- **Jarraitzen duzu Garizuma?** Ez.
- **Zer dauka San Andresek erdialdeak ez duena?** Oso jende jatorra dago hemen.
- **Inoiz ibili zara hegazkinean?** Bai.
- **Noiz joan zinen azkenekoz elizara?** Ez dut gogoratzen baina duela urte asko.
- **Realzalea zara?** Ez, Athletic-en aldekoa.
- **Irakurtzen dituzu horoskopook?** Ez.
- **Lotsatia zara?** Bai.
- **Irakurri duzun azken liburua?** J. J. Benitezen bat, baina aspaldi.
- **Aste Santuetan oporretara joango zara?** Ez.
- **Tabernen ordutegia egokia da?** Ez, zapatu gauetan beranduago itxi beharko genuke.
- **Monterron ala Santa Barbara?** Monterron.
- **Aznarren bertute bat?** Bat bera ere ez.
- **Zer eramango zenuke irla batera?** Emakume bat, janaria eta musika.
- **Etxeko lanetan laguntzen duzu?** Ez.
- **Zergatik?** Ohitura faltagatik. Andrea haserretu egiten da batzutan.



LABURRAK

**Kontzertuak
Gaztetxean**

Arrasateko Gaztetxeak bi kontzertu antolatu ditu martxoaren 15 eta 16rako. Ostiralean 8etan Bartzelonako Kultur taldeak eta Arrasateko Ekon-ek joko dute. Bartzelonako taldeak trash-industrial musika jotzen du. Arrasatekoari dagokionez, euren lehen emanaldia izango dela esan behar da. Baliteke beste talderen batek ere jotzea baina oraindik konfirmatzeke dago.

Larunbatean berriz, Donostiako Nuevo Catecismo Catolico eta Andoaingo "%30" taldeek joko dute. Lehengoak punk-killer-rock musika egiten du eta bigarrenak hard-corea. Larunbateko kontzertua 9etan izango da.

Hitzaldia atzeratu

Ekin emakume taldeak martxoaren 14rako antolatuta zuen "Emakumea eta Komunikabideak" hitzaldia bertan bera geratu zen hizlariak ezin izan zuelako etorri. Hitzaldia emango da baina zehazteke dago eguna.

ARKOK KOMERTZIAL SAILERAKO LANPOSTU BAT BETE BEHAR DU

BALDINTZAK:

Euskara ondo menperatzea.
Harremanetarako erraztasuna izatea.
Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

BALORATUKO DA:

Publizitate, marketing edo enpresa mailan ikasketak izatea.
Herri komunikabideen ezagupena.
Komertzial bezala esperientzia izatea.
Arrasate ezagutzea.
Testu prozesatzaileak eta datu baseak menperatzea erabiltzaile moduan.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Kurrikulumak martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira ARKOk egoitzan.

Azoka kalea, 1 - 20500 ARRASATE - Tfnoa: 77 08 15 - Faxa: 77 09 40


Denborapasak

· ESAERA ·

*“Poesia ez da saltzen,
poesia ez dagoelako salgai”*


G. BODA

· JEROGLIFIKOA ·



Jende asko al zegoen dendan?

· GURUTZEGRAMA ·



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Zabalo, Bertso eskolako irakaslea. 6. Zamorako ibilgailuetan. 8. Epaimahai. 10. Enara. 11. Alde hemendik. 12. Ipin. 13. Apal. 15. Ogibitarteko. 17. Alfabetoko 11. letraren izena. 18. Etorkizuna igartzeko karta multzo. 19. Sasoi, garai. 20. Limoi azalaren kolore.

Bertikalak 1. Atean deika, danbadaka. 2. Irlabatean bizi dena. 3. Hiru koroa dituen mitra garaia. 4. Errusiako ibaia. 5. Rutenioa. 6. Erraz zatitzen dena. 7. Galdetzeko partikula. 9. Zerbaki. 13. EEBBetako estatua. 14. Lo asko egiten duen pertsona. 16. URTEko kontsonanteak.

· HOROSKOPOA ·

Aries Penagarria da zure kontu korronteak bizi duen egoera.

Taurus Aste Santuak ate joka. Aurretan ere mendira?

Gemini Lagunek begiz jo zaituzte. Hori bai injustizia!

Cancer Noizean behin besapea garbitzea ez zaizu txarto etorriko.

Leo Etzi entzungo duzun albiste batek pozez gainezka utziko zaitu.

Virgo Aste Santuak monastegian. Falta zitzaizuna!

Libra Zergatik larritzen zara astebukaera heltzen denean?

Scorpio Abiadura handiegia hartzen duzu neskei buruz hitzegiterakon.

Sagitaris Herensugea baino mingaina handiagoa ei duzu. Ea, erakutsi!


Capricorn Zure burutazioekin harrিতта geratzen dira zure gurasoak.

Aquarius Goibel ikusten zaizu. Arazoak norbaitekin?

Piscis Gainean duzun alkandora horrekin itxura hobe duzu.

Etxe-Aundi


Torrauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Anna de Codorniu

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

TELEBISTAREN TXOKOA



Lau plater goxoenak

Ostegunero Arrasateko hainbat elkar-tek prestatu dituzten plater goxoak ezagutzeko aukera izan da Elkartean saioan. Hurrengo osteguneko programan

berriz, orainarteko elkarte guztietatik lauren plateren bilduma eskeiniko da, Udalpe, Iturripe, Danok Bat eta Leintze elkarteentzako platerak hain zuzen.

KOMIKIA



Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukerun

Etzeko gosoterria

2. PLATERA

Haragia edo urrain

Etzeko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Aitor, 6. Za, 8. Tribunal, 10. Elai, 11. Ur, 12. Jar, 13. Umlil, 15. Otarreko, 17. Ka, 18. Tarot, 19. Aro, 20. Hort.

Bertikalak: 1. Aiejoka, 2. Hilar, 3. Tiar, 4. Obi, 5. Ru, 6. Zaitkor, 7. Al, 9. Numero, 13. Urah, 14. Loti, 16. Ri, **Jeroglifikoak:** Bezere asko.

PROGRAMAZIOA



15 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

9.30etan
Astebete
Gaia: Hirugarren adinekoen partaidetza
Gonbidatuak: Bixente Azkarate, Santamaina jubilatutako; David Arzamendi, Abaroakoa; Antxon Garate, Urbarrikoa eta Musakolako jubilatutako ordezkaribat.

18 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan
Mondrasport

19 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan
Barrelekaixoka

20 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan
Zinea

21 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan
Elkartean

22 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan
Astebete

Etxebizitzak

- **Lizarran 98 m²ko pisua salgai.** Gasturik gabea. Tfnoa: 79 11 02.
- **Jose Luis Iñarra kalean garaje plaza** alokatzen dugu. Tfnoa: 79 36 79.
- **Etxea erosiko nuke.** Tfnoa: 77 00 77. Antonio.
- **Gela bat alokatzen da bi ohekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua alokagai** ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Gauko 9etatik aurrera.
- **Bikote bat pisu bila dabil.** Tfnoak: 77 11 70 edo 72 60 62. Gauko 9etatik aurrera. Agurtzane.
- **Pisua salgai Makatzenan.** Osorik berritua, berogailuaz. Ganbara, 3 logela, eguzkitsua... Tfnoa: 79 07 64.
- **Bizkaia etorbidean pisua alokatzen da.** Tfnoa: 77 14 24 / 76 17 38.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 99 72.
- **Etxebizitza salgai, Uribe auzoan.** Tfnoa: 79 70 37. 7etatik aurrera.

Lana

- **Neska prest pertsona nagusiak** zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 47.
- **Etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 77 07 97.
- **Emakume euskaldunak** eta esperientziadunak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 56 81.
- **Emakumea prest** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 73 83.

• **Pertsona euskalduna** behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 8etatik aurrera. Tfnoa: 77 13 30.

• **Emakumea prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 07 73.

• **Neska gaztea mekanografian** titulatu eta informatikako ezagupenekin (Datu basea, Word-Perfect, MS-Word, Lotus). Tfnoa: 79 84 31.

• **Emakumea gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 76 45.

• **Andra gereontologian** diplomatu eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.

• **Enpresa zientzietan** lizentziatuak matematika eta kontabilitateko klase partikularrak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 16 19.

• **Kontzertuen iluminaziorako**, 25 urtetik gorako, gidatzeko agiriak eta 2 urteko esperientzia duen pertsona behar da. Tfnoa: 79 67 25.

• **Neska esperientziadunak** umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 53 57. Gauko 9etatik aurrera.

• **Neska gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17.

• **Euskaraz, ingelesez eta gaztelaraz** edo beste hizkuntza batzutan ipuin pertsonalizatuak egiten dira. Tfnoa: 79 47 54.

• **Marrazketa diedrikoaren klaseak** jasoko nituzke. Euskaraz ahal bada. Tfnoa: 79 32 10. Iratxe.

• **Ileapaindegian diplomadun** neska esperientziaduna lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81.

• **Etxeko lanak egin**, umeak zaindu edo bulegoak garbitzeko esperientziadun neska gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.

• **Emakumea behar da umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Goizeko orduak bakarrik. Tfnoa: 79 83 89. Dei egin gaueko 8etatik aurrera.

Salerosketak

• **Alfa Romeo Sprint 1.500** kotxe deportiboa salgai. Gorria. Prezio eta egoera ezin hobea. Tfnoa: 79 38 58. Alex.

• **R-9 GTL autoa salgai.** SS-L. 125.000 pta. Tfnoa: 79 65 83. Juanjo

• **Egoera onean dagoen kontrabaxua** erosiko nuke. Tfnoa: 77 13 86. Utzi mezua.

• **Negozio likidatzeagatik** kristalezko apalak, lapurren aurkako alarma eta eskulanetarako larrua salgai. Tfnoa: 79 65 31. Tere.

• **Osagarri guztiak dituen sukaldea salgai.** Merke merkea. Tfnoa: 79 87 07. Kandi.

• **Bulegorako artxibategiak salgai.** 44,5 x 63 x 163 cm. ko neurrikoa. Lan orduetan. Tfnoa: 79 20 18.

• **20"ko aluminiozko mountain bike salgai.** Shimano Deore LX eta osagarri asko. Tfnoa: (989) 58 64 46.

• **Irratizale Walkie Talkie** eta emisora salgai. Emisora: AMko 40 kanaleko emisora basiko berri-berria, 7.000 pta. Walkie Talkie: AM-FMko 40 kanaleko Stabo SH 7700 markakoa, "porra" antena berriarekin eta fundarekin, 13.000 pta. Tfnoa: 79 02 59. Raul.

Denetarik

• **Pultsera bat galdu da** Erguin eta Erdialdeen bitartean. Urrezkoa da, balio handikoa. Dei egin lan orduetan. Tfnoa: 79 15 15.

• **Arrasatetik Gasteiza goizeko 8etan** egunero kotxez joan nahi baduzu dei egin 79 95 35 tfnora. Rakel.

• **Betaurrekoak galdu ditut** Abaroa eta Garibai autobus geltokiaren artean. Tfnoa: 79 36 93.

Aste Gazte

Bekak

• "La Caixa Fundazioak" lizentziatuei zuzenduta, ikasketak hedatzeko beka hauen deialdia egin du. 1996-97 ikasturtea Alemanian, epea: apirilak 30. 1996-97 ikasturtea Bretonia Handian, epea: ekainak 28. 1997-98 ikasturtea Estatu Batuetan, epea: ekainak 28.

• "Banco de España" k, ekonomia, informatika eta matematiketako alorretan ikasketen zabaluntzarako beken deialdia egin du. Ingelesaren ezagupena duten lizentziatuei zuzenduta. Epea: apirilak 12.

• "Novia Salcedo Fundazioak" Donostia, Araba eta Bizkaiako Kanpusetarako kolaboratzaile beken deialdia egin du, bere Unibertsitateko Informazio Guntarako. Karrerako azken bi urtetan daudenei zuzenduta. Euskararen ezaguera derrigorrezkoa da. 50.000 pta. hilero. Epea: martxoak 22.

Lana

• Zallako Udalak administrari lanpostu bat deitu du. Batxilergoa, LHI edo baliokidea izatea eskatzen da. 2. Hizkuntza Eskakizuna (ez derrigorrezkoa). Epea:

martxoak 25.

• Etxarri-Aranatzko Udalak, zerbitzu anitzetarako peoi baten lanpostua kaleratu du. Eskola Graduatuak, LHI edo baliokidea izatea eskatzen da eta B-1 gidatzeko baimena. Epea: martxoak 27.


Lehiaketak

• "Gabriel Celaya IV. Olerki Internazionalaren lehiaketa". Gaztelania hizkuntza bezala duen edozein idazlek har dezake parte. Epea: martxoak 29.

• "Errenteria hiriko II bideo lehiaketa". 16-30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Jatorrizko lanak VHS edo SVHS formatoan aurkeztuko dira gehienez 30 minutuko iraupena izanez. Epea: apirilak 12.

"Intsumisioa gizarte militarizatu batean bizitzearen ondorio da. Garbi dago Armada dela gizarteak duen arazo handiena".

XABIER ETXEBERRIA. INTSUMISO AZKOITIARRAK.



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!

UDALAITZ, S. A.

SEAT

Audi

VW



**Merezi duzun
segurtasuna!**



Musakola auzoa, z/g. Tfnoa: 90 18 80 / 79 21 25 ARRASATE

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektua. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.
OPEL VECTRA BERRIA.
ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Ofiziala **ARRASATE**n

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.